

IRAKASKUNTZA-GIDA

2012/13

Ikastegia 160 - Gizarte Langintzako Unibertsitate Eskola

Zikl. 1. zikloa

Plana TRABA102 - Gizarte Langintzan diplomatua

Ikastaroa 3. maila

IRAKASGAIA

16020 - Gizarte-Lanerako Praktiak III

ECTS kredituak: 14,52

GAITASUNAK / AZALPENA / HELBURUAK

HELBURU OROKORRA:

- Ikasleak errealitate sozialaren (gainbegiratutako) esku-hartzera hurbiltzea, gizarte-langintzaren alorretik eta izaera profesionalarekin.

HELBURU ESPEZIFIKOAK:

- Praktiak egingo diren erakundea ezagutzea.
- Esku hartu behar deneko errealitate soziala ezagutzea.
- Ikasketetan zehar jasotako ezagutza teorikoak planteatzen diren egoera desberdinetan aplikatzea.
- Jardun profesionalerako trebetasunak garatzea.
- Gaitasun eta jarrera baikorrak garatzea lanbidean jardun ahal izateko.

GAI ZERRENDIA

- Gainbegiratutako esku-hartze profesionala.
- 300 orduko praktikak egitea gizarte-erakunde edo entitate batean, bertan begirale bat eta eskolan tutore bat izanda.

METODOLOGIA

- Erakunde edo instituzioetako praktikak: 300 ordu.
- Talde-gainbegiratzeak (eta/edo banakakoak): 2 orduko 7 gainbegiratze.
- Arazoak eta egoerak konpontzea.
- Talde-lanak klasean bertan.
- Ikasleek euren praktika profesionali buruzko ahozko aurkezpena egitea.
- Egindako lanari buruzko banakako idatzizko lana.

Praktiak egingo diren tokira joan aurretik, ikasleek gainbegiratzeko lehenengo bilera izango dute izendatutako tutorearekin. Bilera horretan, tutoreak honakoak azalduko dizkie ikasleei: praktika-programa, gainbegiratzeeen egutegia eta lanaren eskakizunak bai praktika-tokian bai eskolan. Horrez gain, gainbegiratzeeetarako taldeak antolatuko dira, praktika-tokietara sartzeko prozedura azalduko da eta praktika-tokiei buruzko zalantzak argituko dira.

Irakasle tutore bakoitzak jarraitu beharreko metodologia taldearen eta ikasleek praktikak egingo dituzten erakundearen ezaugarrien arabera izango da. Oro har, lehenengo eta bigarren mailako praktiketan aplikatutako metodologiari jarraituz, metodologia-prozesuaren faseak beteko dira: azterketa, diagnostia, plangintza eta esku-hartzeko proiektua, (gauzatzea) eta (ebaluazioa). Horrez gain, gainbegiratzeeetan gaitasun profesionalak landuko dira, esku-hartze sozialerako teknikak aplikatuz.

Tutoreak, gutxienez, bi koordinazio-saio egingo ditu praktika-lekuko begiralearekin: bata, praktikak hasterakoan, irizpide orokorrak ezartzeko, eta bestea, praktikak bukatzerakoan, ebaluazioa egiteko. Ahal den neurrian, saioetako bat praktikak egingo diren tokian bertan izango da, edo bestela, begiraleari eskolara etortzeko gonbitea egingo zaio.

Ikasleek idatzizko lan bat (praktiketako memoria) aurkeztu beharko dute, honako atalak barne hartzen dituena:

- Azterketa-fasea: eguneratzea.
- Diagnosti-fasea.
- Plangintza-fasea.
- Profesionala izan aurretiko esku-hartzearen fasea.
- Ebaluazio-fasea.
- Eranskina: egindako lanaren txostena eta praktiken ebaluazioa.

Argibideak:

EBALUAZIOA

- Praktiak (ariketak, kasuak edo buruketak)
- Banakako lanak

Argibideak:

Irakasgaia ebaluatzeko honakoak hartuko dira kontuan:

- x Praktika-tokira joatea.
- x Gainbegiratze-bileretara joatea.
- x Banakako idatzizko lana.
- x Begiralearen balorazioa.

Argibideak:

- ¿ Praktiketara joatea derrigorrezkoa da, bai praktikak egiteko tokira, bai gainbegiratze-bileretara. Saioen %10era ez joatea ¿ez aurkeztu¿ bezala hartuko da kontuan.
 - ¿ Ez da aurreikusi praktikak bertaratu gabe egiteko modurik.
 - ¿ Azken nota honela dago banatuta:
 - ¿ Praktiak egin diren tokiko begiralearen balorazioa.
 - ¿ Gainbegiratze-bileretan parte hartzea.
 - ¿ Idatzizko azken lana (praktiketako memoria).
- Oharra. Azken nota jaso ahal izateko, atal guztiak gainditu behar dira.

NAHITAEZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK

BIBLIOGRAFIA

Oinarrizko bibliografia

-

Gehiago sakontzeko bibliografia

Aldizkariak

Interneteko helbide interesgarriak